

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresak funtziona dezan funtsezkoa da kostuen egitura zuzen bat izatea. Kostuen egitura bi multzotan banatzen da: hasierako inbertsioa eta hilabeteko kostuak. Hilabeteko kostuen barruan bi motatakoak ditugu: finkoak eta aldakorrak.

Hasierako inbertsioa gure enpresaren hasieran egingo dugun ordainketa izango da. Gastu hauek behin bakarrik ordainduko ditugu.

HASIERAKO INBERTSIOA	
KONTZEPTUA	KOSTUA
Lokalerako mahaiak	119€ x 4
Lokalerako aulkiak	59,99€ x 4
Biltegirako apalak	49,99€ x 2
Entxufe-erregleta	18,68€ x 2
GUZTIRA	853,3€

Taulan ikusten den bezala, hasierako inbertsioko kostu guztiak lokaleko altzarietara zuzenduta egongo dira. Guztira 853,3€-koa izango da hasierako inbertsioa.

Hilabeteko kostuei dagokienez, lehen aipatu dugun bezala, bi motatakoak daude: finkoak eta aldakorrak. Lehenik eta behin, finkoak adieraziko ditugu. Kostu finkoak hilabetero berdinak izango dira, hau da, ez dira aldatuko nahiz eta kontsumoa handitu edo txikitu.

KOSTU FINKOAK	
KONTZEPTUA	KOSTUA
Alokairua	90€
Soldatak	2.500€ x 4
Webgunea	13€
Guztira	10.103€

Kostu finkoak hilabetero ordainduko ditugun gastuak izango dira. Bakoitzak 2.500 euroko soldata izango du, alokairua hilabetero 90€-koa izango da, eta webgune bat izateko hosting-a eta domeinua 13€ izango dira.

Kostu aldakorrak hilabetero desberdinak izango dira, hau da, kontsumoa edo salmentak handiagoak edo txikiagoak baldin badira gastuak aldatu egingo dira.

KOSTU ALDAKORRAK	
KONTZEPTUA	KOSTUA (HILEKO)
Tabletak (samsung Tab A9)	149€
Zorroak	8,53€
Sentsorea	21,40€
Tabletaren soportea	25,98€
Garraioa	5€
GUZTIRA	209,91€

Kostu aldakorrak finkoak ez direnez, hilabetero aldatzen joan daitezke arrazoi desberdinen ondorioz. Kostu horiek materialarenak eta garraioarenak dira. Guztira tablet bat egiteak eta saltzeak 209,91€-ko kostua du. Hilabetero 300 tablet produzituko ditugula aurreikusten dugunez, 62.973€-ko kostua izango dugu produktuan hilabete bakoitzeko.

Kostu finkoak eta aldakorrak gehituz, hilabetero guztira 73.076 € gastatuko ditugu. Bestalde, urteko kostua 876.912 €-koa izango da.